


Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

MAKINA JASANGARRIEN TAILERRA: EGUZKI-LABEA



HELBURUAK:

- Eguzkia energia iturri natural, bukaezin eta ez kutsakor gisa identifikatzea.
- Eguzki-labe bat eginez, kausa-efektu erlazioa zehaztea.

LANDUTAKO GAITASUNAK:

- Zientzia, teknologia eta osasun-kultura
- Ikasten ikasi
- Hizkuntza-komunikazioa

JARDUERAREN GARAPENA:

Adin tarte honetan, tailerrak oso eraginkorrak dira curriculum gaizatzeko. Oso aproposak diren lau kontzeptu lantzen dira:

Behaketa: beharrezko denbora hartu behar da patxadaz behatzeko, atentzioa jarritz.

Esperimentazioari bide ematen dio: ukitu, manipulatu, hots, kontzeptuak barneratzeko aukera.

Ikerketa sustatzen du. Irakasleak gidatzen du, ikasleen interesa piztuz, proposatuz, zuzenduz, animatuz, iradokiz edota galderak eginez.

Ondorioak ateratzen laguntzen du. Ikasleek frogak egiten dituzte, behin baino gehiagotan errepikatzen dituztenak: froga-errorea, kausa-efektua... Ondorioak ateratzeko ariketak dira, ezagutzaz ahalduntzen dira.

Tailerrak ekosistemak bezalakoak dira, ikasketa prozesuan oso lagungarriak. Ikasleek bere bide propioa marrazteko, beste ikasleekin erlazionatzeko, ezagutzak konpartitzeko, ezagutza konplexuagoetan sakontzeko edota proiektuak lantzeko bide berriak ezagutzeko balio dute. Finean, ikasketa prozesuan modu positiboan eragiten dute.



1. NESKA MUTILEN EZAGUTZAK KONTUAN IZAN

Garrantzitsua da ikasleek zer dakiten ezagutzea. Horretarako, etxetik eguzkiaren argazkiak, marrazkiak edota irudiak ekartzera gonbidatuko ditugu. Aitzakia aproposa izango da eguzkia bizitza-iturri zein energia-iturri bezala duen garrantziaz hitz egiteko.



2. MAPA-MURALEAN IRUDIKATZEA:

Etxetik ekarritako argazki, irudi edota marrazkiak arbelean jarriko ditugu, bakoitzaren aldamenean esaldi/idea bat idatziz. Ondoren, irakasleak informazioa antolatuko du. Azkenik, esaldi/idea bakoitzari titular moduko bat emango diogu eta eguzkiaren mapa-murala egingo dugu.

3. EGUZKI-LABEA

Eguzki-labea egiten hasi aurretik, bi ideia nabarmenduko ditugu: ingurumen abantailak eskaintzen dituela eta gainontzeko energia-iturri ez berriztagarriekin ezberdintasunak dituela.

Eta egun eguzkitsu batean ikusitakoa praktikan jarriko dugu. Lauzpabost ikasleko taldeetan eguzki-labeak egingo ditugu. Ikasle bakoitzak egiteko bat izango du: esatariak, gertatzen ari dena kontatuko du; idazkariak, prozesua jasoko du idatziz edo marraztuz; eraikitzaileak, energia-labea egingo du; eta azkenik, behatzaileak, aldaketak taula batean jasoko ditu.

Eguzki-labea egiten hasi aurretik, webgune hauek bisitatuko ditugu:
<http://www.experiencia.com/cocinando-con-un-homo-solar/>
<http://science-at-home.org/cooking-with-solar/>

4. MAKINA KOADERNOA

Ikasturtean zehar egiten ditugun esperimentu guztiak koaderno batean jasoko ditugu.



Iturriak:

Ciencia 0-3 Laboratorios de ciencias en la escuela infantil - Silvia Vega Timoneda, Editoria GRAÓ ISBN: 84-7827-440-5

Los talleres en educación infantil. Espacios de crecimiento - Battista Quinto Borghi, Editoria GRAÓ ISBN: 84-7827-412-X

Basura y reciclaje. Colección Biblioteca de los experimentos - Rosie Harlow y Sally Morgan, Editorial Everest, 1996 ISBN: 84-241-1965-784-241-1989-4